

Gizonaren sinismena gehitzen ala gutxitzen ari da?

Zeruko Argia, 368. zk., 1970-03-22: 11.

Zortzi erri aurreratuenetan egindako neurketak: Frantzia, Bretaña Aundia, Alemania (sartaldekoa), Holanda, Suiza, Suezia, Noruega ta Ipar Amerika. Neurketa gaiak: Jaungoikoa, paradisua, eriotzaren ondorengo bizitza, gizakuntza berria, ibernua ta deabrua.

Zer demoniotarako egiten dira ganora-gabeko neurketa hoiek?

Maiz entzuten duguna da hauxe. Baiña berria dalako bakarrik, ez dugu jakiteko erreminta hau gutxi-etsi behar. Gizonaren bizitza osoa ondoen eta berdinduen ezagutu nahi ba dugu, gutxienez lau bide erabili behar ditugu: *istori* bidea (gizonak lehen zer izan dan jakiteko), *ekoloji* bidea (gizonaren bizitzak Lur honetako izaerakin dituan elkarkizunak ezagutzeko), *kasuistika* edo kasularitza (gertaera bakoitzaren azterketarekin ikasteko) ta *estadistika* edo *zenbaketa* (gertaerak maiz edo bakan gertatzen diran jakiteko).

Zenbaketa hau behar aundikoa dugu.

Milloi bat gizonen artean 2-k *eriotzaren ondoren bizirik ez dagoela* esaten ba dute, ez da garrantzi aundiko arazoa; bi zoro ez baitira gehiegi; baiña milloi bat gizonen artean 2-n ordez (Frantzian *oraintxe oraintxe egitan gertatzen ari dan bezala*) 530.000-ek sinisten ez dutela esaten ba dute? Pentsa zenbat zoro-etxe beharko lituzteken.

Zenbaketak ba du, ba, bere esan-nahi adierazgarria.

Egiaren billa errazean eta kapritxoz joateko bidetxurrik ez dago. Azpikerizkorik ere ez: gezurra, usain txarra bezela, berehala sentitzen dalako. Hala, egi-billaketa hau zeatz egiteko oso neketsua izaten da; bidetsur honen billatzaille hau egiazko zientzi bidez asi zan lanean, eta lan asko egin eta gero eldu da norabait; gaur lortzen dituan ondoreak ononak dira, ta ara gaur erri bakoitzeko zenbatek Jaungoikoaz edo ifernuaz sinesten duan jakiteko bideak argi ta garbi ta sorgiñkeriarik gabe agertzeko bidean gizona jarri.

Emen erabiltzen ditugun neurkaiak ez dira Ebanjelio izango; baiñan ia-ia.

2

Galdera hoiek nola egin erabaki ta gero, gai hau aztertzekeo batu diran erriak eta arakundeak hoiek izan dira:

<i>Erria</i>	<i>Erakundea</i>	<i>Galderak egindako pertsonek adiñak</i>	<i>Zenbat galdera</i>
Frantzia	I.F.O.P.	20 urte ta gehiago	1.521
Bretaña Aundia	Sozial Surveys	16 urte ta gehiago	1.000
Sarkaldeko Alemania	Emnid	16 urte ta gehiago	2.000
Holanda	Nipo	16 urte ta gehiago	468
Suiza	Isopublic	18 urte ta gehiago	1.000
Suezia	Sifo	15 urte ta gehiago	600
Noruega	Norsk Gallup Inst.	15 urte ta gehiago	1.600
Ipar-Amerika	The Gallup Org. Inst.	21 urte ta gehiago	1.500

Emen goarteman behar dugun zerbait: erria zeintzuk osatzen duten jakiteko, erri bakoitzak jarri dituan urte-mugak hoiek dira: Sueziak eta Noruegak 15 urtekoa; adiñ horretako gazteek ere zer-esana ba duten seiñalea. Bretaña Aundia, Alemania eta Holandan asmo hoiere jabe izateko gutxienez 16 urte behar dituzu. Suizan, 18; Frantzian, 20, ta Ipar-Amerikan, 21. Emen galdera hoiei erantzuna emateko diña izateko ezkondua izan beharko zenduke.

3-bat

Lehenengo galdera: *Jaungoikorik ba ahal da?*

	<i>Bai</i>	<i>Ez</i>	<i>Erantzun ez</i>
Frantzia	%73	%21	%6
Bretaña	%77	%11	%12
Alemania	%81	%10	%9
Holanda	%79	%13	%8
Suiza	%84	%11	%5
Suezia	%60	%26	%14
Noruega	%73	%12	%15
Ipar-Amerika	-	-	-

Ikusten dugunez, *suizarrak* dira (nahiz eta gehienak protestanteak izan: katolikoak baiño millo bat protestante gehiago) *Jaungoiko bat ba dala gehien sinisten dutenak*. Gutxi (eta hoiek ere protestanteak dira) sueziarrak (%73). Eta, noski, sinisgabe gehienak ere emen: sueziarrak %26 ta frantsesak %21. Zalantzan dauden gehienak: sueziarrak %14 ta noruegarrak %15.

Ipar-Amerikan ez zan galdera hau egin.

3-bi

Bigarren galdera: *Paradisurik ba ahal da?*

	<i>Bai</i>	<i>Ez</i>	<i>Erantzun ez</i>
Frantzia	%39	%52	%9
Bretaña	%54	%27	%19
Alemania	%43	%42	%15
Holanda	%54	%31	%15
Suiza	%50	%41	%9
Suezia	%43	%42	%15
Noruega	%60	%20	%20
Ipar-Amerika	%85	%11	%4

Ara nondik, berriz, protestanteak nagusi diran erriak fededun gehiago ematen dituzten, eta katolikoak gehien direnak (Frantzia) fededun gutxiago. Beste alde batetik begiratuta: teknikaz aurreratuen diran erriak, batez ere Ipar Amerika, dira Paradisu bat dala sinisten dutenak ere.

3-iru

Irugarren galdera: *Il da geroko bizirik ba ahal da?*

	<i>Bai</i>	<i>Ez</i>	<i>Erantzun ez</i>
Frantzia	%35	%53	%12
Bretaña	%38	%35	%27
Alemania	%41	%45	%14
Holanda	%50	%35	%15
Suiza	%50	%41	%9
Suezia	%38	%47	%15
Noruega	%54	%25	%21
Ipar-Amerika	%73	%19	%8

Emen Paraisu bat ba dugula esaten dutenak berak dira bizitza honen ondoren beste bat nunbait ba dugula uste dutenak. Paradisuan bizitzeko bigarren bizi bat behar bait da! Gure bizi leku hontan bigarren bizitza ba dugula gutxien sinisten dutenak frantsesak dira. Eta, bai ala ez dan zalantzarik aundienean daudenak: britaniarrak eta noruegarrik.

3-lau

Laugarren galdera: *Gizakuntza berririk ba ahal da?*

	<i>Bai</i>	<i>Ez</i>	<i>Erantzun ez</i>
Frantzia	%23	%62	%15
Bretaña	%18	%52	%30
Alemania	%25	%54	%21
Holanda	%10	%55	%35
Suiza	–	–	–
Suezia	%12	%72	%16
Noruega	%14	%57	%29
Ipar-Amerika	%20	%64	%16

Suizan ez zan galdera hau egin.

Ipar-amerikarrak dira Paradisuaz eta il da geroko biziaz *gehien sinisten dutenak*; baiña ez *dute beste bizitzan soñ eta guzti izango geranik espero*; beste nolabaiteko bizi-modua izango ote degun dagoz. Hollywood-en asmatutako pelikula batzuetan agertu ohi izan diguten beste bideren bat dute fedezko, apika. Egia esan, katolikoek fedekizun honetan ez du gure gaurko munduak gehiegi sinisten; fededun gehienak Alemanian (kalbinista ta guzti) dagoz, eta emen ere %25 besterik ez. Ezezkoan ziurren daudenak sueziarrak (%72), amerikarrak (%64) eta berriz ere frantsesak (%62); goiko arazoak ondo miatu ba lituzke bezala itz egiten dute gure bizilagunak. Zalantza aundienak dituztenak holandarrak eta britaniarrak dira.

3-bost

Bostgarren galdera: *Ifernurik ba ahal da?*

	<i>Bai</i>	<i>Ez</i>	<i>Erantzun ez</i>
Frantzia	%22	%70	%8
Bretaña	%23	%58	%19
Alemania	%25	%62	%13
Holanda	%28	%61	%11
Suiza	%25	%67	%8
Suezia	%17	%71	%12
Noruega	%36	%45	%19
Ipar-Amerika	%65	%29	%6

Zerua ba dala sinisten duten berak, amerikarrak, daude emen ifernuaren beldur. Gutxien sinisten dutenak, sueziarrak; hoiek dira, noski, ifernurik ez dagola ziur daudenak. Ifernuaren beldurrik ez duten besteak ere ba dira emen: beti bezela, frantsesak (ezer egon ez dedin emango luteke hoiek duten guzia!) %70, eta suizarrak %67, alemanak %62 ta holandarrak %61; horregatik dabilta holandar hoiek

emakumeak apaizkintzan sartzeko proposamentu ausartak egiten ain lasai! Zalantzan daudela gehien agertzen diranak: noruegarrek eta britaniarrek.

3-sei

Seigarren galdera: *Deabrurik ba ahal da?*

	<i>Bai</i>	<i>Ez</i>	<i>Erantzun ez</i>
Frantzia	%17	%76	%7
Bretaña	%21	%60	%19
Alemania	%25	%62	%13
Holanda	%29	%57	%14
Suiza	%25	%69	%6
Suezia	%21	%68	%11
Noruega	%38	%44	%18
Ipar-Amerika	%60	%35	%5

Ez dago Papini emen! Ia iñork ez dio gaurko egunean deabruari jaramonik egiten. Amerikarrak dira deabrua ba dala gehien sinisten dutenak; %60 ba dira ta! Nork esan teknikoen artean horrenbeste etsai-sinesdun egongo zanik. Gero, baiña askoz ere beherago, noruegarrek datoz (%38) ta holandarrak (%29); holandar hoiek ba dakite deabrua nonbait ba dala! Gutxien sinisten dutenak berriz ere frantsesak dira (%76), ta suizarrak (%69) ta sueziarrak (%68). Ba dan edo ez dan zalantzan daudenak britaniarrek dira gehien (%19), ta gero noruegarrek (%18). Beharrezkoa danez, ifernurik ez dagoala. Ala ere Frantzian ifernuaz sinisten ez dutenak %70 dira, ta deabrurik ez dagoala esaten dutenak %76; ba dira, ba (%6) deabrurik gabeko ifernua ba dala usten dutenak ere! Nik Holandan, esango nuke; ta beste lekotxoren batean ere bai.

4

Nik broman bezala artu dut hau, ta esango dut zergatik.

Erri hoietan jaso diren iritzi hoiek ez dute Jaungoikorik kendu edo jarriko; Paradisurik eta il ondorengo bizitzarik eta ifernurik eta deabrurik ere ez dute sortu edo alde-egin araziko. Ba liteke (askotan gure bizkar jakin ohi dugun bezela) gehienok nahi ez duguna irentsi behar izatea.

Eta, bestetik, neurketa honek garrantzi aundiko beste esannahi bat ere ba du:

Eundaka ta eundaka urtetan (Frantzian bezela) katoliko izan diran erri hoietan nolatan sortu dira asmo hoiek? Nonbaitere, egin dan irakastea ez da *egia* behar bezela erakusteko diña izan; bestalde, *egia* erakusteko bide oso aldrebesak ibili dira iñola ere.

Ta beste hau ere ba da:

Protestante gehiena izan duan erria, Ipar-Amerika, dugu eten gabe *Paradisua*, *beste bizitza*, *ifernua* ta *deabruz* sinesmen aundiena duana. Hau protestantean egindako kaltea ote?

5

Ta, azkenik, beste ondore bat ere atera nahi nioke neurketa honeri:

Neurriketa hau orain egin eta emendik amar urtetara kondizio beretan beste neurketa bat egiten ba da. Ikasiko dugu arazo hoietaz joerak norantzekoak diran: fedea gehitzekoak diran; fedea gehitzen ala gutxitzen ari dan.

Hau da, lan honen ondoren ongarriena; baiñan ez garrantzitsuena.

Atera itzuli arazi ezin dan jakintza bere gizonaren eragille biurtzen da. Asieran esan dugun bezela, bi zorok ez dute mundua osatzen, baiña zoro hoiek erdiak baiño gehiago izatera eltzen diranean, asko baiño gehiago ba dira. Erdetik gora gaiñezka egiten duten hoiek irauli arazi lezakete gaurko gure mundu hau. Ez dakigu onerako ala kaltetarako izango dan.

Nola nai, or goaz gu ere.